



Herria informatzera gatoz

Urtean lau bider helduko da etxeetara mx aldizkaria;
Herria herritarrek egiten dute eta denok eduki behar dugu horren berri.



3 Herritarrek Gabonak jantzi dituzte

4 Martxan daude lau batzorde parte-hartzaile

6 Kantxeroa egongo da frontoian

6 Herriko noranzkoak aztertuko dira

7 Zuberoara joango da Abarka antzerki taldea

Herria informatzera gatoz

Urte berriarekin batera, lehenengoz heldu gara zuon etxeetara, eta ez da azkena izango. Izan ere, eskuartean duzun aldizkari hau hiru hiletik behin iritsiko da markina-xemeindarron etxeetara.

Hiru-hilabetekari honekin ere guztion parte-hartzea bultzatzea du helburu Udalak, nahiz eta askotan ez dakigun zertaz ari garen berba horiek entzuterakoan. Batzuetan Udalaren jardura gure eragin-eremuetatik kanpo topatzen eta sentitzen dugu; horrela ordezkari politikoen esku lagatzeko joera dugu udal-jardura guztia. Horrela bada, parte-hartzeaz dihardugunean Udala herrira hurbiltzeaz gabiltza, guztion artean herria egiteaz, guztiok herri-gintzan eta udalgintzan jarduteaz; hau da, ordezkari politikook herritarrentzat eta herritarrokin lan egitea nahi dugu. Parte-hartzea ez da bakoitzak nahi duena egitea, Udalak, ahalik eta pertsona gehienon artean, herri hobea egitea baino.

Aurrez inoiz egin gabeko gauzak egitea ez da erraza izaten, bidea eginez ikasten baita. Hala ere, herritarren beharrianei erantzuteko bitarteko guztiak jarriko ditu Udalak. Ahal den heinean, guztiok esateko

zerbait eduki eta esandakoak entzunak izateko. Perfekzioz ez dela existitzen kontziente izanda, bakoitzak bere esparrutik dagokion eremuan eragin ahal izateko. Entzunez, jasoz, hausnartuz, eztabaidatuz eta erabakiz.

Guzti hau errealia izateko, herritarrok jakin egin behar dugu zertan den Udalaren jarduna. Ez da berba politikak erabiltzearen kontua, pausoak eman eta Markina-Xemeinen bizi garen guztiontzat herri justuagoa eta hobetoago erakitzekeko urrats bat da. Denon artean

eraiki, izaera desberdineko herritarrak batuz, ikuspegiak partekatuz eta denoi interesatzen zaizkigun puntu komunez berba eginez, hain zuzen ere.

Horregatik sortu da aldizkari hau: iritziak edukitzeko, elikatzeke eta aberasteko informazioa ezinbestekoa delako. Beraz, herritarrokin komunikatzeko beste bitarteko bat gehiago da. Lehendik ditugun panel informatibo, osoko bilkura ireki, batzorde zabal, bando eta webgureari gehitzen zaion beste baliabide bat da. Behar izanez gero, hemen dituzue denon eskura dauden arloetako batzorde eta batzordeburuen kontakturako datuak. Erabili beldur barik!



Juanjo Txurruka Txurruka

ALKATETZA

alkatetza@markina-xemein.com

946167454

Irma Etxebarria Gerenabarrena

EUSKARA

euskara@markina-xemein.com

689992818

OGASUNA

ogasuna@markina-xemein.com

Josune Baskaran Etxebarria

ONGIZATE

ongizate@markina-xemein.com

689992766

PAREKIDETASUNA

parekidetasuna@markina-xemein.com

PARTEHARTZE ETA KOMUNIKAZIOA

komunikazioa@markina-xemein.com

Gorka Fundazuri Lorenzo

HIRIGINTZA

hirigintza@markina-xemein.com

689992775

KULTURA

kultura@markina-xemein.com

Joseba Iraolagoitia Martinez

KIROLA

kirola@markina-xemein.com

659992848

MIGRAZIOA

migrazioa@markina-xemein.com

Karmelo Jaio Ibarluzea

INGURUMENA


ingurumena@markina-xemein.com

689983797



'Barroetatarrak', Udalean

Bernardo Arrizabalagaren Barroetatarrak liburua Durangoko Azokan banatu zuen Markina-Xemeingo Udalak. Oraindik ere badaude ale batzuk eta nahi duenak Udaletxeko harreran eska dezake.



Karmeldarrek herrian egindako beharra liburura eraman du Larrañagak

Xabier Larrañaga Gisasola herritarrek Karmeldarren eragin kultural eta soziala Markina-Xemeinen 1960-1980 hamarkadetan herriko kultur bizitzan emandako bultzada eta babesaren abenduaren 16an.

Orain bost urte, 2007an, Karmeldarren urtea deitu zitzaion urte hartan, herrian Karmeldarrek eduki zuten eragina aztertzeko beka bat atera zen Eusko Ikaskuntzarekin hitzarmena eginda. Beka horren irabazlea izan zen Larrañaga eta haren emaitza dugu abenduan aurkeztu zuten liburua.



Udalak Kareaga dendan laga ditu liburuak, nahi duten herritarrek bertan dohainik jaso dezaten



Arrieta eta Mosquera irabazle Peru Abarka sariketan

ABCD berri bat albuma izan da aurtengo Peru Abarka sariketako irabazlea. Yolanda Arrieta idazlea eta Yolanda Mosquera ilustratzailea izan dira VI. Edizioko irabazleak. Albuma Udalean aurkeztu zuten Biblioteken Egunean, urriaren 24an.

Herriko taldeei esker egitarau zabala osatu da Gabonetan

Eskerrak ematera gatoz. Eskerrak merezi duzuelako. Zoragarria da herrian herriarentzako beharrez hainbeste jende ikustea, guztion artean, batzuen ilusioak eta besteen pozak sortzea.

Denok dakigu krisi garaian gaude, eta horren aurrean, herrigintzatik lortu beharko dugu diruak lortu ezin duena.

Aurtengo Gabonetan, aurreko urteetan legez, egitarau zabala eduki dugu herrian. Talde asko aritu dira horretarako beharrez, eta banan-banan eman nahi dizkiegu eskerrak: Herriko biblioteka, Guraso Elkarte, Xemein Astialdi Taldea, Abarka Antzerki Taldea,

Garaian Kultur Elkarte, Gazte Asanblada, Uhagon, Xemein abesbatza eta Xemeingo Gazte Ahots Abesbatza, Zerutxu, Ekozain, Jai-Alive, Egin dezagun bidea, Eskolarteko Guraso Elkarte, Artibai Mendigoizale Taldea, Emeki korala, Udaleko Kultur eta Kirol batzordeak, Musika Banda, Erdiko kaleko auzokideak, Bertso eskola, eta beharrez aritu diren herritar guztiak.

Gabonetako umeen parkean, herriko gazteek herriko umeentzat egin dute beharra, dohainik. Udalak eskerrak eman nahi dizkie bertan egon diren boluntarioei.

Bestalde, eskerrak asko ekintzetan parte hartu duzuen guztioi. Jarrai dezagun Markina-Xemein biziago bat egiten!

Gabonetako Ekintzak

Gabonetako postala	567,50 €
Markina Shots!	1.000 €
Txan Magoa	300 €
Puzgarriak	3.032,60 €
Errege Magoak	300 €
Gernika ikuskizuna	4.147,70 €

Batzordeak

Irailean jarri ziren martxan Udal batzorde parte-hartzaileak: euskara, kultura, parekidetasuna eta kirola. Horiek dira momentuz herri osoari zabalik daudenak, baina, aurrera begira, oraindik gehiago sortzea da Udalaren helburua.

Udalak herritar guztiek batzordeetan parte-hartzeko apustua egin nahi du. Horrela, bakoitzak bere ekarpenak egin ez, herritarrek hartuko dituzte herriari dagozkion erabakiak. Hilero elkartzen dira batzordeak.

Udalak batzordeetan parte-hartzeko gonbidapena egiten dizu. Ateak zabalik daude. ANIMATU!



Hurrengo batzordea:
OTSAILAREN 27an

Kirol batzordeko lehenengo helburua herriko beste taldeen berri edukitzea izan zen. Horrek gauzak elkarrekin, komunean egitea ahalbidetzen du, eta herritarrei gauza bateratuak heltzea erraztu.

Kirol batzordea hiru bider batu da, baina, horrez gain, talde ezberdinekin ere badabil lanean.

Kirol batzordeak orain arte egindako lanak hainbat izan dira. Hasteko, egutegi bateratua jarri nahi da martxan. Horretarako azpitaldea sortu da eta lanean ari dira. Bestetik, kiroldegiko gaien inguruko azpitaldea ere sortu da. Batzar bat egin zen eta laster egingo da bigarrena.

Batzordeak, talde bakoitzak erabiltzen duen azpiegitura zein den aztertu du; horrekin planning bat egin da azpiegitura publikoei ahalik eta erabilera handiena eta anitzena emateko. Talde bakoitzaren beharrianak zeintzuk ziren azalera-tu zen, ahal den heinean, talde guztien premiei erantzuteko.

Azpiegitura publikoei ahalik eta erabilera handiena eta anitzena ematea da helburuetako bat



Hurrengo batzordea:
OTSAILAREN 14an

Herrian euskara sustatu, zabaldu eta normalizatzea dira Euskara batzordearen ildo nagusiak. Irailean elkartu ziren lehenengoz, eta ordutik, hilero egin dituzte batzarrak. Bertan elkartzen dira alderdi politikoetako ordezkariak, herrian euskararen sustapenean diharduten elkarteak, herriko elkarteetako ordezkariak eta norbanakoak.

Batzordearen hasierako zeregina aurreko urteetan euskara teknikariak martxan jarritako ekimenei jarraipena ematea izan da haren lana eten ez dadin. Hala nola, "Haurrekin bakarrik ez, zeuon artean ere euskaraz" kanpaina, "Peru Abarka" lehiaketa, "Euskarazko Produktuen Katalogoa"-ren banaketa...


2012ra begira dago orain Euskara Batzordea, euskararen erabilera eta transmisioa bultzatzeko herrian antolatzen diren ekimenak eta ekintzak babestu edota antolatzea da datorren urterako erronka.

Horren ildotik, euskara sustatu, zabaldu eta normalizatzeke plana izango da ildo

nagusia, bertan udal teknikariaren lanpostua berreskuratzea, transmisioa bultzatzeko ekimenak (Kuku CDa, Euskarazko Produktuen Katalogoa), herritarren euskalduntzea (euskara ikasteko dirulaguntzen araudia, Aisa ikastaroak, TELP tailerra, Berbalagun), kulturegintza sustatzea (Peru Abarka lehiaketa, "Apelliduak abizendu" kanpaina, "Berbetan proiektua"-ri babesak, Euskarazko Komunikabideei dirulaguntzak zehaztea)... dira lan ildo nagusiak.

Euskara sustatu, zabaldu eta normalizatzeke plana izango da ildo nagusia

Euskararen eguneko ekimenen barruan 'Arriya' filma eskaini zuen Udal Euskara Batzordeak kultur aretoan.



mx KULTURA

Hurrengo batzordea:
URTARRILAREN 30ean

Dagoeneko martxan dago kultur batzordearen helburuetako bat: kultur agenda bateratua

Taldeen arteko koordinazioa bultzatzea da Kultur batzordearen helburu nagusia. Hori bideratzeko, orain arte egin diren bileretan hurrengo gaiak jorratu dira: Kultur agenda bateratua, Jai Batzorde iraunkorra, kultur mailarako azpiegituren diagnostikoa, kultur batzordeko blog-a, jaien jarraipena, etab.

Kultur batzordean kultur taldeetako partaideak eta herritarrak batzen dira. Batez beste 20 herritarrek hartu dute parte bileretan.

Helburu batzuk martxan jarri ditugu dagoeneko: horietako bat Jai Batzorde iraunkorra da. Kultur batzordeak jai batzordea urte osoa izatearen premia igarri zuen, urte osoan jai asko eta asko daude-eta Markina-Xemeinen. Bere funtzioa, besteak beste, jaiak koordinatu, jarraipena egin eta horien balorazioa ematea izango da.

Martxan jarri den beste ideia bat kultur agenda bateratuarena da. Uhagoneko agenda bazegoen, baina Markina-Xemeingo kultur taldeen ekintzak ez ziren azaltzen bertan. Herriko taldeek ekintza asko eta asko antolatzen dituzte eta horiek denak batera agertzea premiazkoa zela adostu zen. Dagoeneko jaso duzue zuen etxeetan urtarileko agenda berria. Orain arte bezala Uhagon izango da hileroko agenda koordinatuko duena, eta horrela kultur taldeek Uhagonekin harreman zuzena izango dute.



mx PAREKIDETASUNA

Hurrengo batzordea:
OTSAILAREN 7an

Aldarrikapen feministak eta kontzientzia feminista goratzea da Parekidetasun batzordearen helburu nagusia. Bide horretan, egin daitezkeen ekintza, plangintza eta kontzientziazio bideak jorratzen ari dira irailetik hona bertako partaideak. Hilero elkartu da irailetik, eta hainbat ekintza burutu dituzte. Hasteko, aurreko legealdian herrian gazteak eta indarkeriari buruz egindako diagnostikoaren konklusioak aztertu dira.

Indarkeriari dagokionez, *Markina-Xemeingo Udalaren salaketa publikoak indarkeria ma-*

txista eta erasoen ondorioz (gizonezko baten eskuetan) emakumeen hilketa kasuetan txostena sortu, aztertu, eta aho batez onartu zen Osoko Bilkuran.

Bestetik, berdintasun arloan herrian dauden hutsuneak identifikatzen eta aztertzen hasita dago batzordea.

Aurrera begira, hurrengo urterako programazioa osatzen ari da Parekidetasun batzordea.

Herrian dauden hutsuneak identifikatzen eta aztertzen hasita dago batzordea



Azaroaren 25ean Udal Parekidetasun Batzordeak hainbat ekintza antolatu zituen. Irudian, egunean bertan egin zen elkarretaratzea.



Ondo aparkatzea, denontzat onura

Udalak ondo aparkatzeko kanpaina ipini du martxan, jendeari kotxea lagatzerakoan kontziente izateko eskatuz. Espaloiak eta oinezko guneak ez dira aparkalekuak eta ezinduentzat gordetako lekuak eurentzat dira. Bestetik, alde zaharreko kaleetan ezin da kotxeekin sartu, aparteko kasuetan edo larrialdietan izan ezik. Gainera, noranzko seinaleak errespetatu egin behar direla gogorarazi behar da. Udalak herritar guztien laguntza eskatu nahi du eta denok kontzientzia hartzea beharrezkoa dela gogorarazi.

Arriagarena erakusleiho onena

Urtarrilaren 10ean erakusleihen sariak eman ziren Bilbon. Urtero antolatzen du Merkataritza Ganberak Bizkaiko Erakusleiho Lehiaketa. Bizkai osoko sariak ematen dira, eta horrez gain, udalerrri bakoitzak herriko erakusleiho onena saritzen du. Sari bi jaso ditu herriko Arriaga artisautzak: Markina-Xemeingoa eta Bizkai mailako Natura saria.

Kantxeroa, frontoirako

Udalak frontoiari ustiapen egokia emateko kantxeroa kontratatu du, postu horretarako pertsona baten premia zegoelako. Gorka Urkidi izango da lan horretan ariko dena.

Kantxeroa aukeratzeko prozesua hauxe izan da. Hasteko, baldintzen plegu bat kaleratu zen, kantxeroaren betebeharrak eta eskubideekin. Plegu hori pilota eskoletakoek eta Udaleko alderdiek egin dute, eta kirol batzordearen onepena jaso du.



Hamabost eguneko epea izan zuten herritar guztiek izena emateko. Epe hori pasatu ostean, kontratazio mahaia eratu zen: alkatea, hiru alderdi politikoetako zinegotziak eta idazkaria. Erabakia aho batez hartu zen.

Azken tramiteak amaitu eta berehala hasiko da beharrean kantxeroa, urtarilaren amaierarako.

Norabideak aztertzekeo prozesua zabalik

Herriko trafikoaren norabideak berraztertzekeo prozesua jarri du martxan Udalak. Trafiko arazoak direla eta, herriko bideak osotasunean aztertzekeo ardura hartu da. Momentuz, 6-7 proposamen jaso ditu Udalak. Proposamen horiek Udaltxeko harreraren daude ikusgai, eta horiez gain, plano markatu gabeak ere jarri dira, nahi duenak ekarpena egin dezan.

Bidaurretan, obra baimena

1998an Bidaurretan txaletak egiteko onartutako plana egonean eduki da azken hamalau urteotan. Abenduan udalbatzak obra baimena onartu zuen. Bete beharreko baldintzak hurrengoak dira: urte beteko epean obrak hasita egotea; eta hiru urteko epean onartuta egotea.

Erosketak herrian bertan

Hemen be bai Merkataritza elkar-eraketak egiteko gurditxoak jarriko ditu herritar denek eskura. Laster egongo dira gurditxoak herriko denda txikiengan erosketak egitea errazteko asmoarekin. Herritarrak herrian erostera animatu nahi ditugu Udaletik.

Praktikak udaletxean

Komunikazio arloko ikasketak egin dituzten ikasleek, Udaletxean praktikak egiteko aukera edukiko dute. Horretarako, adostutako hitzarmen bat sinatu beharko dute hezkuntza zentruetara eta Udalak.

BADATOZ ARATUSTEAK!

Otsailaren 19an,
bihurtu zeu ez zarena!



mx taldeak berbetan

Atal honetan herriko taldeei emango zaie berba. Zer litzateke herri hau zuengatik ez balitz!

Iaz egin zenuten lehenengoz 'maskar' ikuskizuna. Zelan jaso zenuten parte-hartzeko gonbidapena?

Zuberoan urtero antolatzen da Xiru jaialdia. Musika eta sorkuntza jaialdi bat da eta bertan antzerkia egiteko eskatu zioten Iñigo Ibarriari, Ander Lipusi. Iñigok antzerki taldean komentatu zuen ea prest egongo ginatekeen zerbait elkarrekin egiteko eta asteburu batean iparraldera joateko. Ez genuen bi bider pentsatu beharrik eduki: guretzat sekulako aukera zen. Antzerkia egiten jarraitzeko zein herritik kanpora Abarka Antzerki Taldea ezagutzera emateko. Iparraldera joan eta bertako jendearekin jaialdi batean parte-hartzeak asko motibatuz gintuen. Hegoaldea eta iparraldea antzerkiaren bitartez uztartu eta elkar gehiago ezagutzeko aukera emango zigun.

Parte hartzea aipatu duzue, zein talderekin elkartu zarete ikuskizun honetarako?

Abarka Antzerki Taldeaz gain, Donapaleuko fanfarreak, Gotaineko dantzariak, Touloneko hip-hop-eroak (Par-aldeles) eta Amaren Alabak gaude ikuskizun honetan. Ikuskizun bete-betea: dantza, musika, kantua eta antzerkia. Irailean Arretxinagan ere egin genuen. Orduan ere talde horiek denok egon ginen, Amaren Alabak kenduta. Horien ordezkariak beste bost neska etorri ziren, zein baino zein hobek.

Orain Zuberoako maskarada galtzearekin egon da. Zelan jaso duzue Maskar ikuskizuna bertan egiteko proposamena?

Mixel Etxekopar Xiru jaialdiaren antolatzailea da eta odolean darama kultura sortu, sustatu eta bizirik mantentzearen aldeko lana. Bere email bat jaso genuen 2011ko azaroan. Irratiz enteratu berri zen Xiberuko maskaradak bertan behera gertatu zirela. Urtero herri batek antolatzen du maskarada, eta aurten Gamere Zihigakoek hartu behar zuten erreleboa, baina hurbileko senideren bat hil zitzaizela-eta, bertan behera uztea erabaki zuten. Iaz ere

Abarka antzerki taldea

“Ohore bat da Zuberoara joan eta maskaradaren kutsu hori usaintzea eta usainaraztea”

Zuberoan urtero egiten den maskarada Gamere-Zihiga herriak egin behar zuen aurten, baina gertakari larri baten ostean ez egitea erabaki zuten. Santa Graziko gazteek hartzea proposatu zen, baina horiek ere ez dute aurten maskaradarik egingo. Maskaradarik ez zela egingo eta, Mixel Etxekoparek Abarka Antzerki Taldeari Maskar ikusgarria ikuskizuna egitea proposatu dio. Martxoaren 3an eta 4an izango dira emanaldiak.



horixe bera pasatu zen Santa Grazin, eta maskaradak amaitu orduko bertan behera geratu ziren. Eta hortxe akordatu zen Mixel Abarketarrokin. Emailean esaten zuen: “beharbada ideia astapittoa izango da, baina hala ere nahi nizuake aipatu...”.

Kritikaren bat be egon da, honek ez duela betiko maskarada ordezkatzeko.

Jakina ez duela ordezkatzeko, eta ez da hori asmoa. Xiberuko maskaradek xiberotar nortasunaren kontzientzia kolektiboan eragiten dute. Maskarada egitea tokatzen zaion herria guztiz inplikatzeko da bere prestaketan, denboraz hasten dira dena antolatzen... Maskaradekin, kultura sustatzen dute, euskara bizitzeko daukaten gogo adierazten dute, herri desberdinetako jendeak elkar ezagutzen du... eta batez ere, umorez eta alaitasunez jarduten dute. Zentzu horretan, Maskar ikuskizunak baditu aipaturiko ezaugarri horietako batzuk: kultura, elkar ezagutzea, umorea, euskararen aldarrikapena... aldatzen dena parte-hartzaileak dira. Iparretik iparrera edo Xiberutik Xiberura barik, iparretik hegora edo hegotik iparrera dela. Eta asteetako kontua izatetik asteburu batera pasatzen da. Xiberuko ohiturak abiapuntu hartuta sorkuntako ikuskizuna da. Mixel Etxekoparek

berak dioen moduan, maskaradaren berrikuspen modernoa da, edo tradizioa oinarri hartutako sorkuntza modernoa. Noski, honekin ez dugu nahi tradizioaren kontra joan, gauza barriak esperimentatu baino.

Abarka Antzerki Talde moduan zer balorazio egiten duzue horrelako gauza batean parte-hartzearekin?


Balorazio oso positiboa da, poz-poz gaude. Gauza askotarako aukerak zabaltzen dizkigu: batetik, iparraldeko ohitura eta antzerki tradizioa ezagutu eta hortik ikasteko aukera ematen dizkigu; bestetik, hegoaren eta iparraren arteko mugak gainditu, elkar ezagutu eta elkarlanerako aukerak zabaltzen dira. Eta batez ere, antzerkia egiten jarraitzen dugulako, gauza barriak probatzeko gogoia daukagulako eta honek horretarako aukera ematen digulako. Guretzat erronka handia da hau, eta talde batek erronkak edukitzea ezinbestekoa dela pentsatzen dugu. Bestela, ohiko dinamiketan nagitu egin gaitzke... Guretzat ohore handia da iparraldera joan eta maskaradaren kutsu hori usaintzea eta usainaraztea. Guregan dagoen gogoia eta ilusio guztia ipiniko ditugu! Denok zaudete gonbidautu Bizkaitik Zuberoara asteburu pasa. Plan itzela! •

Bizkaibuseko ordutegiak

A3916 ONDARROA - ERMUA - BILBAO (Autopistatik)


ONDARROATIK IRTEERAK:

Lanegunetan eta larunbatetan:
05:40etik 19:40era orduro.

 05:40 - 07:40 - 09:40 - 11:40
13:40 15:40 - 17:40 - 19:40


Larunbatetan 6:10etan Ondarrutik
Bilbora zerbitzu bat dago.

Jaiegunak: 06:40etik 20:40era orduro.

 07:40 - 09:40 - 11:40 - 13:40
15:40 17:40 - 19:40


BILBOTIK IRTEERAK:

Lanegunetan eta larunbatetan:
07:10etik 22:10era orduro.

 07:10 - 09:10 - 11:10 - 13:10
15:10 17:10 - 19:10 - 21:10

Astelehenetik ostiralera 7:30etan zerbi-
tzu bat dago Markinatik Ondarrura.

Jaiegunak: 08:10etik 22:10era orduro.


 09:10 - 11:10 - 13:10 - 15:10 -
17:10 19:10 - 21:10

A3915 ONDARROA - DURANGO - BILBAO (Autopistatik)

ONDARROATIK IRTEERAK:

Lanegunetan eta larunbatetan:
06:10etik 20:10era orduro.

Jaiegunak: 07:10etik 20:10era orduro.


 07:10 - 09:10 - 11:10 - 13:10
15:10 - 17:10 - 19:10

Eskola egunetan ordu hauetako zerbi-
tzuak lotura dute Durangon A3924
linearekin: 06:10 07:10 08:10 09:10
12:10 eta 13:10.

BILBOTIK IRTEERAK:

Lanegunetan eta larunbatetan:
07:40etik 21:40era orduro.


Jaiegunak: 08:40etik 21:40era orduro.

 09:40 - 11:40 - 13:40 - 15:40
17:40 19:40 - 21:40


A3512 BILBAO-LEKEITIO (Autopistatik)

LEKEITIOATIK IRTEERAK:

Astelehenetik larunbatera: 06:30etik
21:30era orduro.

 07:30 - 09:30 - 11:30 - 13:30
15:30 17:30 - 19:30 - 21:30

Jaiegunak: 08:30etik 21:30era orduro.


 09:30 - 11:30 - 13:30 - 15:30
17:30 19:30 - 21:30

BILBOTIK IRTEERAK:


Astelehenetik larunbatera:

06:00etan. 06:45etik 13:45era orduro.

15:00etan. 15:45etik 20:45era orduro.

 06:00 - 07:45 - 09:45 - 11:45
13:45 15:45 - 17:45 - 19:45

Jaiegunak: 6:45etik 20:45era orduro

 07:45 - 09:45 - 11:45 - 13:45
15:45 17:45 - 19:45

Bertso-albistea

*Parkinak jarri doguz
bizikletentzako
ta orain herritarrok
probatu beharko.
Pedalei emon eta
kotxeari planto
bizikleta hobea
baita danerako,
osasunerako ta
ingurunerako.*



UDAL TELEFONOAK

Markina-Xemeingo Udala - Goiko portala, 3

HARRERA ☎ 946167454

ARLO EKONOMIKOA ☎ 946169214

HIRIGINTZA ETA OBRAK ☎ 946169193

UDALTZAINGOA ☎ 656791144

✉ udala@markina-xemein.com

www.markina-xemein.com

TELEFONO INTERESGARRIAK

BIBLIOTEKA

☎ 946169047

ATXONDO KIROLDEGIA

☎ 946167731

UHAGON

☎ 946166303

www.uhagon.com

BETI JAI Jubilatuen Elkartea

☎ 946166571

SAN ROKE EGOTETXEA

☎ 946166221

GIZARTE ZERBITZUAK

☎ 946169027

ESKUALDEKO NEKAZARITZA BULEGOA

☎ 946166259

LEA ARTIBAIKO AMANKOMUNAZGOA

☎ 946169068

ENPLEGU BULEGOA (LANBIDE)

☎ 946830700

JABETZA ERREGISTROA

☎ 946168148

POSTETXEA

☎ 946166328

AZARO FUNDAZIOA

☎ 946169172

BAKE EPAITEGIA

☎ 946166020

NOTARITZA

☎ 946168025

BUTANOA

☎ 943882576

SOS DEIAK

☎ 112

GENERO INDARKERIA

☎ 900 840 111

OSASUN ETXEA

☎ 946 166 306

ALKOHOLIKO ANONIMOAK

☎ 944150751

SUHILTZAILEAK

☎ 944657515



Markina-Xemeingo
Udala